

TXOSTENA / MEMORIA

01: DIPUTATU NAGUSIA

Diputatu nagusiaren betekizunak, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauan jasota dagoen bezala, eta Foru Aldundiko organo goren gisa, ondoko hauek dira funtsean:

- Gobernu programa zehaztea eta zuzentzea.
- Foru Aldundiaren xede diren egitekoak modu egokian egiteko eta hartu beharreko erabakiak behar bezala prestatzeko behar diren barne arauak ezartzea.
- Estatuarekin, Euskal Autonomia Erkidego eta gainontzeko autonomia erkidegoekin, eta baita ere Europako beste eskualde batzuekin, eta beste lurralde historikoetako organoekin, udalekin eta gainerako administrazio, erakunde, agintaritza eta pertsona publiko eta pribatuekin izaten diren harremanetan, lurralde historiko honen ordezkariak eduki eta agertzea.
- Foru arauen proiektuak egiteko prozesua zuzentzea eta Foru Aldundiaren arau programa koordinatzea.

Diputatu nagusiaren egitura organikoa Diputatu Nagusiaren Kabineteak eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak osatzen dute, 2007ko uztailaren 11ko 60/2007 Foru Dekretuan eta oinarrizko departamentu egiturari buruzko 2007ko uztailaren 17ko 65/2007 Foru Dekretuan jasotakoaren arabera.

Zentzu horretan, Diputatu Nagusiaren Kabineterako aurreikusitako aurrekontuak zereginei eta bete beharreko zerbitzuei dagozkienak dira.

1. DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA

Diputatu Nagusiaren Kabineteko aurrekontuak, lurraldearen interes orokorrak zuzendu, koordinatu, ordezkatu eta sustatzeko funtsezko betekizunei dagozkien jarduerak

01: DIPUTADO GENERAL

Las funciones propias del Diputado General, tal y como vienen recogidas en la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, y en su calidad de órgano superior de la Diputación Foral, son, básicamente, las siguientes:

- Definir el programa de gobierno y llevar su dirección.
- Establecer las normas internas que se precisen para el buen orden del desempeño de la misión de la Diputación Foral, y para la adecuada preparación de los acuerdos que hayan de adoptarse.
- Personificar y ostentar la representación del Territorio Histórico de Gipuzkoa en sus relaciones con el Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco y demás comunidades autónomas, así como con otras regiones europeas, y con los órganos de los otros territorios históricos, municipios y demás administraciones, entidades, autoridades o personas públicas o privadas.
- Dirigir la elaboración de Proyectos de Normas Forales y coordinar el programa normativo de la Diputación Foral.

La estructura orgánica del Diputado General está formada, de acuerdo con lo preceptuado en los Decretos Forales 60/2007, de 11 de julio, y 65/2007, de 17 de julio, sobre estructura departamental básica, por el Gabinete del Diputado General y la Dirección General de Comunicación.

En este sentido, los presupuestos previstos para el Gabinete del Diputado General responden a la lógica asunción de los servicios y funciones que componen el mismo.

1. GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL

Los presupuestos del Gabinete del Diputado General reflejan, en general, el conjunto de actuaciones inherentes a las funciones básicas de dirección, coordinación,

islatzen ditu nagusiki, aurreko atalean adierazitako jarduerak, hain zuzen ere.

Diputatu nagusiari dagozkion lidergo eta koordinazio funtzioen esparruan, Diputatu Nagusiaren Kabinetea aurrekontuan 2007-2011 legealdirako Kudeaketa Plan Estrategikoa izenekoaren koordinazio eta jarraipen lanentzako aurrekontu zuzkidura jasotzen da. Plan horretan biltzen dira, alde batetik, 2007-2011 aldirako Foru Aldundiaren kudeaketako lehentasunezko helburuak eta estrategia eta jardura ildoak eta, bestetik, ezarritako helburuak betetzeko erakunde osoaren jardura bideratzeko kudeaketa prozedura.

Kudeaketa Planak bere gain hartzen du modu solidario batean plangintza ezin dela gelditu legealdien mugen barruan eta, hortaz, legealdiaren azken zatian epe luzeko begirada indartzeko balioko duen analisi prozesua egitea planteatzen du. Horrela, legealdi aldaketek eragin ohi dituzten arriskuak saihestu nahi dira, epe luzeko logika bati erantzun beharko lioketen gaietan etenaldiak gertatzen baitira. Halaber, planaren berrikusketa kritiko bati ekin behar zaio politika publikoen ebaluazioaren esparruan, kudeaketa publikoa bera hobetzeko tresna bezala sustatzen ari baita Foru Aldundia.

Era berean, Diputatu Nagusiaren Kabineteak diru kopuru bat du bai Batasuneko erakundeetan bai eskualde mailako gobernu ezberdinetan gaurkotatzen duten gaiei ekiteko; hala nola, gobernantza modu berriak, kontzertazioa, herritarren parte-hartzea, demokrazia esku-hartzailea, lurraldearen kohesioa, balioen garrantzia eta lurraldeko eragileen artean harremanen kalitatea eta intentsitatea, eta interakzioa sustatzea. Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da Herritarren Partaidetzari buruzko 2010eko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauan xedatutakoaren arabera sortutako Partaidetzarako Foru Bulegoaren funtzionamendurako zuzkidura bat dagoela. Atal honetan sartzen dira “Foru Aldundia zure

representación y promoción de los intereses generales del territorio, referidas en el apartado precedente.

En el marco de la función de liderazgo y coordinación que corresponden al Diputado General, el presupuesto del Gabinete del Diputado General contempla la dotación presupuestaria que corresponde a la tarea de coordinación y seguimiento del Plan de Gestión Estratégica para la legislatura 2007-2011. En este Plan el ejecutivo foral presenta por un lado, los objetivos prioritarios de la gestión, las líneas estratégicas y de actuación de la Diputación Foral para el periodo 2007-2011, y por otro lado, el procedimiento de gestión para orientar la acción del conjunto de la institución hacia el cumplimiento de los objetivos establecidos.

El Plan de Gestión asume de un modo solidario que la planificación no puede quedar en los estrictos límites de cada una de las legislaturas, y plantea, en consecuencia, abordar en la última etapa de la legislatura un proceso de análisis que contribuya a reforzar la mirada a largo plazo. Se pretende de este modo limitar el importante riesgo que los cambios de legislatura normalmente implican, al producirse la interrupción y el corte en cuestiones que debieran responder a una lógica de largo plazo. Asimismo, corresponde abordar una revisión crítica del Plan en el marco de la evaluación de las políticas públicas, que como herramienta de mejora de la propia gestión pública viene impulsando la Diputación Foral.

Análogamente, el Gabinete del Diputado General dispone de asignación para abordar cuestiones que hoy día están de plena actualidad tanto en los organismos comunitarios como en diferentes gobiernos a niveles regionales, como son los nuevos modos de gobernanza, la concertación, la participación ciudadana, la democracia participativa, la cohesión territorial, la importancia de los valores y el fomento de la calidad e intensidad de las relaciones y la interacción entre agentes del territorio. Cabe destacar, en primer lugar, la dotación para el funcionamiento de la Oficina Foral de Participación creada según lo dispuesto por la Norma Foral 1/2010, de 8 de julio, sobre

herrian” eta “Gipuzkoa eraikitzen” ekimenak; ekimen horien helburua da informazioak eta kezkek zuzenean herritarrekin trukatea. Azpimarratzekoa da, baita ere, ikerketa-ekintza proiektuak egin direla lurraldearen kapital soziala ezagutzeko aukera ematen duten balioen eta kapital sozialaren esparruan egindako ekimenetan. Kapital sozial hori ulertu behar da, Gipuzkoako gizartearen dauden balio, arau, jarrera, konfiantza, sare eta antzeko elementuen multzo gisa. Ildo horretan kokatzen dira Gizarte Balioak ekimena eta Gipuzkoa Sarean proiektua. Proiektu horren helburua da, 2009 eta 2010. urteetan egindako ikerkuntza lanaren bitartez, lurraldearen balio berezienak identifikatu eta, ondoren, esku hartze fasera pasatu eta Gipuzkoaren garapena, lehiakortasuna eta ongizatea sustatzeko lehen aipatutako balioak ezartzea indartuko duten ekintzak abian jartzea 2011ko urtariletik aurrera. Atal honetan sartzen dira Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta London School of Economics unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenak Gizarte Berrikuntzako Zentro bat abian jartzeko.

Kudeaketa Planak aintzat hartzen du Foru Aldundiaren jardura ezin dela ulertu irla bat izango balitz bezala. Gipuzkoa osoa bere osotasunean hartu behar da kontuan, eta hortik dator lurraldeko eragile guztiekin kontzertazio mekanismoak sakontzeko beharra. Foru Aldundiaren nahia da Gipuzkoa ireki bat egiterako bidean aliantzak osatzeko erakundea izatea.

Kultura politiko berri horren esparruan Gipuzkoa Aurrera ekimena eratu zen, lurraldeko erronka estrategiko handiei erantzuna emateko eta ekonomia arloan Gipuzkoaren lehiakortasuna sendotzeko. Helburua ez da egitura berriak sortzea, baizik eta lurraldearentzat funtsezkoak diren gaitan elkarlanean aritzea. Ekimen berriei ekin beharrak eta egoera ekonomiko zail honi aurre egin beharrak lidergoa eta elkarlanean aritzean sortzen den giza energia hori eskatzen dituzte. Diputatu Nagusiaren Kabinetearen aurrekontuan Gipuzkoa Aurrera ekimenak

Participación Ciudadana. Se apuntan en este apartado las iniciativas “Foru Aldundia zure herrian” y “Gipuzkoa eraikitzen”, cuyo objetivo es intercambiar informaciones e inquietudes directamente con la ciudadanía. Se subraya, también, la realización de proyectos investigación-acción en valores y capital social que permitan conocer el capital social del territorio, entendido éste como el conjunto de valores, normas, actitudes, confianza, redes y elementos semejantes que se encuentran en la sociedad guipuzcoana. En esta línea se enmarcan tanto la iniciativa Valores Sociales/Gizarte Balioak, como el Proyecto Gipuzkoa Sarean que busca, mediante una labor de investigación, desarrollada durante los años 2009 y 2010, identificar los valores más característicos del territorio, para, después, pasar a la fase de intervención y poner en marcha, a partir de enero de 2011, acciones que fortalezcan la implantación de los referidos valores con el objetivo de promover el desarrollo, la competitividad y el bienestar de Gipuzkoa. En este apartado se inscriben los convenios con la Universidad del País Vasco y la London School of Economics para el lanzamiento de un Centro de Innovación Social.

El Plan de Gestión toma en consideración que la actuación de la Diputación Foral no puede concebirse como si se tratara de una isla. Gipuzkoa entera debe ser tomada en su conjunto, de ahí la necesidad de profundizar en los mecanismos de concertación con el conjunto de los agentes del territorio. La Diputación Foral pretende ser una institución conformadora de alianzas en el camino hacia una Gipuzkoa más abierta.

En el marco de esta nueva cultura política y para responder a los grandes retos estratégicos del territorio y potenciar la competitividad de Gipuzkoa en materia económica, se constituyó la iniciativa Gipuzkoa Aurrera. No se trata de crear nuevas estructuras sino de trabajar juntos a favor de cuestiones fundamentales para el territorio. La necesidad de abordar nuevas iniciativas y hacer frente a la delicada situación económica requiere liderazgo y la energía social que se produce al trabajar juntos. El presupuesto del Gabinete del Diputado General contempla una

sustatzen dituen proiektu berritzaile hauentzako diru kopuru bat jasotzen da: Living Lab, Biodonostia Institutuak esparru biosanitarioan gidatzen duen ikerketa aplikatua; CIDETEC Teknologia Elektrokimikoen Zentroak sustatutako ekimena, teknologia berrien garapenaren sustatzeko, aukera izan dadin gure lurraldean energia garbiak ezartzeko eta baliabide energetikoen aprobetxamendu eraginkorragoa lortzeko; ibilgailu elektrikoek erabilera sustatzea; landa eremuan zuntz optikoko sareak bultzatzea; GAIA Euskal Autonomia Erkidegoko Elektronika eta Informazio Teknologien Industrien Elkarteak eta IK4 Research Alliancek bultzatutako Smart Grids izeneko proiektua garatzea energia banatzeko mikrosare adimentsu bat sortzeko; Donostiako Udalak sustatutako Talent House ikertzaileen egoitzari laguntza ematea.

Kultura politiko berriaren esparruan eta, modu zuzenagoan, erakunde arteko komunikazioa gehiago sustatzeko sartzen den beste ekimenetako bat Kudeatuz 2008-2011 programa da. Horretarako, Foru Aldundiak eta Eudelek hitzarmena sinatu zuten lurraldearen gobernantza sistema hobetzeko helburuarekin. Bertan, udalek eta eskualdeko garapen agentziek hartzen dute parte eskualdearen garapena indartzeko, herritarren parte hartzea erakundeetan bultzatzeko eta, tokiko esparruan herri politiken ebaluazio azterlanak sustatzeko.

Foru Aldundiak lurraldearen dinamizazio ekonomiko eta soziala bultzatu eta horri laguntze aldera prestatu duen Krisiari aurre egiteko Planaren esparruan, Diputatu Nagusiaren Kabineteak bere gain hartu ditu ondoko proiektu hauek:

- Enpresa proiektu estrategikoak sustatzeko programa, autonomoen beharrak aztertzea eta lanbide heziketa egokitzea.

asignación con destino a los proyectos innovadores que Gipuzkoa Aurrera impulsa como es el caso de: Living Lab, la investigación aplicada en el ámbito biosanitario que pilota el Instituto Biodonostia; el fomento del desarrollo de nuevas tecnologías que permitan una mayor implantación de las energías limpias en nuestro territorio, así como un aprovechamiento más eficiente de los recursos energéticos, mediante la iniciativa que promueve CIDETEC (Centro de Tecnologías Electroquímicas); el fomento del uso de vehículos eléctricos; el impulso a las redes de fibra óptica en el ámbito rural; el desarrollo de Smart Grids para la creación de una micro red inteligente de distribución eléctrica, proyecto impulsado por GAIA -Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco- e IK4 Research Alliance; así como el apoyo a la residencia para personal investigador-Talent House promovido por el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

Otra de las iniciativas que se inscribe en el marco de la nueva cultura política y de modo directo en el fomento de mayor comunicación interinstitucional es el programa Kudeatuz 2008-2011, a cuyo efecto se suscribió un convenio entre la Diputación Foral y Eudel. Es objetivo del mismo mejorar el sistema de gobernanza del territorio. Se cuenta con la participación de los ayuntamientos y las agencias de desarrollo comarcal para impulsar el desarrollo comarcal, favorecer la participación ciudadana institucional y promover estudios de evaluación de políticas públicas en el ámbito local.

En el marco general del Plan Anticrisis elaborado por la Diputación Foral para impulsar y coadyuvar a la dinamización económica y social del territorio, el Gabinete del Diputado General asume la ejecución de los siguientes proyectos:

- Programa de impulso de proyectos estratégicos empresariales, así como análisis de necesidades para los autónomos y adecuación de la formación profesional.

- Lanaren kulturaren inguruko sentsibilizazio plana, Sendotuz ekimenaren esparruan.

Halaber, aurrekontuaren 2. atalean gastu arruntan -protokoloa, azterlanak eta diktamenak, etab.- kontu sail arruntak jasotzen dira.

Aurrekontuaren 4. atalean Foru Aldundiak, beste erakunde eta entitateekin batera bi proiektu berezitan duen partaidetza jasotzen da: Arantzazu Gaur Fundazioa, Arantzazuren sustapena eta berrikuntza bultzatzeko ikuspegi orokor eta etorkizuneko batetik; eta Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Akademiaren hausnarketarako foroa, pentsamendu-askatasuna eta sortzeko askatasuna sustatzeko eta defendatzeko, bikaintasuna bilatzeko helburuarekin.

Halaber, kontu sail bat jasotzen da kongresuetarako eta departamentuetako ohiko deialdietan jasotzen ez diren ezohiko gertaerei eta egoerei laguntza emateko.

Azkenik, 4. atalean, duen izaera orokorra dela eta, Gipuzkoako Etxeen Federazioarentzat ekarpen bat jasotzen da.

2. KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Komunikazio Zuzendaritzaren helburua hau da: Foru Aldundiaren politika, proiektu eta jarduketeki buruzko informazio etengabea eta iraunkorra eman, zabaldu eta eskaintzea gipuzkoarrei. Horretarako, Zuzendaritzak bi zeregin hartuko ditu bere gain: batetik, Foru Aldundiaren barruan komunikazio arloan aritzen diren arlo ezberdinetako arduradunen lana koordinatzea eta, bestetik, komunikazio politiken ildoak ezartzea, hori guztia Foru Aldundiak eta bere arduradunek presentzia aktiboa eta hurbila izan dezaten gipuzkoarren artean hedabide ezberdinen bitartez.

Legealdian zehar, Komunikazio Zuzendaritzak bere gain hartu du Kudeaketa Planaren komunikazioaren artikulazioaren

- Plan de sensibilización en torno a la cultura del trabajo, en el marco de la iniciativa Sendotuz.

En su capítulo 2 el presupuesto incluye, asimismo, las partidas ordinarias de gasto corriente -protocolo, estudios y dictámenes, etc.-.

El capítulo 4 contempla la participación de la Diputación Foral, junto con otras instituciones y entidades, en dos proyectos singulares como son: la fundación “Arantzazu Gaur Fundazioa” para impulsar la promoción y renovación de Arantzazu con una visión global y de futuro; y el foro de reflexión Jakiunde, Academia de Ciencias, Artes y Letras, para la promoción y defensa de la libertad de pensamiento y creación, comprometida en la búsqueda de la excelencia.

Se incluye asimismo una partida para congresos y ayudas para eventos y situaciones de carácter extraordinario no contempladas por las convocatorias ordinarias de los departamentos.

Finalmente, en el capítulo 4, y dado su carácter general, se incluye una aportación a la Federación de Casas Regionales de Gipuzkoa.

2. DIRECCIÓN GENERAL DE COMUNICACIÓN

La Dirección de Comunicación tiene el objetivo de dar a conocer, difundir y ofrecer a la sociedad guipuzcoana una información continua y sostenida de las políticas, proyectos y actuaciones de la Diputación Foral. Para lograrlo, la Dirección asume la coordinación del trabajo de las personas responsables de las diferentes áreas en las que a efectos de comunicación se ha organizado la Diputación Foral, así como el establecimiento de las directrices de la política de comunicación en orden a lograr una presencia activa y cercana de la Diputación Foral y sus responsables entre los guipuzcoanos y las guipuzcoanas, a través de los diferentes medios de comunicación.

La Dirección de Comunicación ha asumido durante la legislatura una parte esencial en la articulación de la comunicación

funtsezko zati bat. Plan hori legealdi honetarako Foru Aldundiaren jardueraren oinarritzko estrategia denez, zaila zen plan horrek arrakasta izatea Foru Aldundiak lurralderako duen estrategian herritarrak ez baziren aintzakotzat hartzen. Planaren komunikazioa ez da informatzeko asmoarekin bakarrik egiten, baita ere erakundearen estrategia eta jarduera ildoak gizarteratzeko eta kontrastatzeko baliabide gisa. Zentzu horretan, garrantzitsua da trantsizio urte batean lehenbizi legealdiko balantzea egitea eta ondoren legealdiko ikuspegiak.

Komunikazio Zuzendaritza arduratzen da lurraldeko atari instituzionala den gipuzkoa.net-eko edukiak koordinatzeaz eta kudeatzeaz.

Planteamendu hori guztia aurrekontuetan islatzen da. Komunikazio Zuzendaritzak erakunde osoari buruzko mezuak finantzatzen ditu eta, era berean, laguntza ematen die jarduera estrategiko garrantzitsuenak komunikatzeko egin behar diren kanpainei. Departamentu bakoitzetik ateratzen den produktuaren berri ematea, ordea, bakoitzari dagokion aurrekontuaren kontura joango da.

del Plan de Gestión, dado que al tratarse de la estrategia básica de actuación de la Diputación Foral para la legislatura, era difícil que el Plan tuviese éxito si la ciudadanía no se consideraba parte de la estrategia de la Diputación Foral para el territorio. La comunicación del Plan no es tanto un fin para informar del Plan como un medio para socializar y contrastar las líneas estratégicas y de actuación básica de la institución. En este sentido, es importante en un año de transición abordar primero el balance y después las perspectivas de legislatura.


La Dirección de Comunicación se responsabiliza de la coordinación y gestión de contenidos del portal institucional del territorio gipuzkoa.net.

Todo este planteamiento tiene su transposición a efectos presupuestarios. La Dirección de Comunicación financia aquellos mensajes referidos al conjunto de la institución, así como el apoyo a las campañas que se aborden para la comunicación de actuaciones estratégicas relevantes. La comunicación de producto correrá a cargo de los presupuestos de los respectivos departamentos.

01 Departamentua DIPUTATU NAGUSIA
 Departamento 01 DIPUTADO GENERAL

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	LANGELIAREN GASTUAK 1	ONDASUN ET SERB.OHIKO 2	FINANTZA GASTUAK/ 3	OHIKO DIRU LAG. ETA TR 4	INBERTSIO ERREALAK/ 6	KAP. DIRU LAG.ETA TRA 7	FINANTZA AKTIBOAK/ 8	FINANTZA PASIBOAK/ 9	Aurrekontu Guztira
Programas	GASTOS DE PERSONAL	G. CORR. EN BIEN.Y SERV	GASTOS FINANCIEROS	TRANSFEREN. Y SUBV.CORR	INVERSIONES REALES	TRANS Y SUB DE CAPITAL	ACTIVOS FINANCIEROS	PASIVOS FINANCIEROS	Total Presupuesto
10.Diputatuen Kontseiluaren Lehendakaritza/ Presidencia del Consejo de Diputados	813,93	4.453,57	0,00	3.771,46	198,94	2.835,00	0,00	0,00	12.072,89
20.Komunikazioa Comunicación	256,05	2.672,97	0,00	344,00	0,00	0,00	0,00	0,00	3.273,02
Departamentua Guztira	1.069,97	7.126,54	0,00	4.115,46	198,94	2.835,00	0,00	0,00	15.345,91
Total Departamento									



- 1. GASTOS DE PERSONAL
- 2. GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y
- 4. TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES
- 6. INVERSIONES REALES
- 7. TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES